07. Hiri-hazkunde formak

1. Sarrera. Hiri-hazkunde formak: garai historiko bakoitzeko hiri-zati bereizgarriak, partzelatze (lurzorua betetzeko egitura), urbanizatze (zerbitzuak banatzeko azpiegitura) eta eraikitze (eraikinak egituratzeko tipologia) jakin bat dutenak.
2. Oinarrizko hiri-hazkunde formak:
   - Historiaurreko hazkunde-formak:
     a. Plangintzarik gabeko hazkunde organikoa. Adibideak: Herrixka neolitiko etruriarrak (K.a.1500); Herrizka garaikide kamerundarra.
     b. Hiri berri helenistikoa: Miletoko Hipodamo, "hirigintzaren aita"tzat jo daitekeena. Miletoko berreraikitzea (K.a. 479, 30x52 metroko insulak), Olintoko zabalgunea (K.a. 432, 35x86 metroko insulak); Prienen hiri-bilbe bera erabili zen (K.a. 350, 35x45ko insulak).
     c. Zenturiazio erromatarra. (*Centuriae*: ~700x700m (edo 20x20 *actus*); *Actus*: ~35x35m). Adibidea: Ponpeiako zabalgunea (K.a. V.mendea, 35x100 metroko insulak).
   - Erdi Aroko hazkunde-formak:
     a. Baserri isolatua: Euskal ipar-isurialdeko landa-eremuko eraikin tiporik garrantzitsuena. Adibidea: Igartubeiti, Ezkio-Itsaso, XVI. mendekoa (dolare-baserri gipuzkoarra motatakoa).
     b. Elizatea: Eliza baten inguruko etxe edo baserri-multzoa. Elizako atarian biltzen ziren erabaki politikoak hartzeko. Adibideak: Oñatiko Araotzeko elizatea; Arrasateko Bedoñako elizatea.
     c. Hiribildua: Erdi Aroko hiri mota, eliza edo monastegi baten inguruan sortua, eskuarki harresiz inguratua. Adibidea: Rottweil, Alemania.
     d. Burgoa: Hiribilduko harresiz kanpoko herrixka erdiantolatua, eskuarki udaletxe baten inguruan eraikitzen dena. Adibideak: Rottweil; Iruñeako burgoak, XIV. mendea.
     e. Dorretxea eta hiri-jauregia. Berez, ez dira hazkunde-formak, baizik eta eraikin tipoak. Dorretxearen funtzio militarrak ezberdintzen ditu. Dorretxeak landa-eremuan ere kokatzen ziren. Adibideak: Gasteizko Otxanda dorretxea, XVI. mendekoa; Zallako Herrerako dorretxea, Enkarterriak; Ipeñarrieta dorretxea, Urretxu; Gasteizko Kordoi Etxea, XIII. mendekoa. Jauregiak geroago sortuak dira, Pizkundean eta Barrokoan, eta, eskuarki, patioa dute. Adibideak: Zalduondoko Lazarragatarren jauregia, XVI. mendekoa; Lazkaoko Lazkaotarren jauregia, XVII. mendekoa.
     f. Errabala: Hiribilduko harresiz kanpoko herrixka ez antolatua, bide batetan zehar eraikia. Adibidea: Markinako errebala (Abesua); Durangoko errabalak (Ermodo, Kurutziaga, San Agustin, Intxaurrondo eta Pinondo).
     g. Bastida: Erdi Aroan Frantziako hegomendebaldean sortutako hiri berri eredua, guztiz planifikatua, erregularra, plaza baten inguruan, merkatua jasotzen zuena. Adibideak: Biarnoko Navarrenx, Villareal, Monpazier, La Bastide Clairence (Lapurdiko Bastida).
   - XVII-XVIII. Mendeko hazkunde-forma:
     a. Hiri neoklasikoa: Otxandategi plana Zangotza Berria egiteko, 1787; Ugartemendia plana Donostiako alde zaharra berreraikitzeko, 1814.
   - XIX. mendeko hazkunde-forma:
     a. Zabalgune burgesa edo *dezimononikoa*: Bartzelona, Atenas, Argel, Bari, Madril.
     b. Industriagunea: Industria iraultza eta gero, lantegiak hirietara eramaten dira. Trenarekin, ez dute lehengaien alboan egon behar jada, eta salmenta puntuen alboan ezartzen dira. Adibidea: Abandoibarra (Euskaldunako ontziolako lehen itsasontzia 1905. urtean egiten da).
   - XX. mendeko lehen erdiko hazkunde-formak:
     a. Langileen auzoak eta Lorategi-hiria:
        1. *New Town* ingelesak. Sendibakarreko etxebizitzez betetako hiri osoak, London hiriko dentsitatea jeisteko asmoarekin sortuak.
        2. *Hof* austriarrak. 1920. hamarkadako Vienako langile auzoak, dentsitate handikoak, erdigunetik urrun baina trenbidez ongi lotuak daudenak. Adibidea: Karl Marx Hof, Karl Ehn, 1927 (1.100m luze, 1.382 etxebizitza).
        3. *Siedlung* alemaniarrak. Dentsitate bajuagokoak. Eskuarki, espazio publikoa sortzen dute. Berlinekoak, metroaz lotuak (1902an hasi zen). Adibidea: Britz Siedlunga, 1925-1933, Bruno Taut.
3. Hazkunde forma bakoitza hirigintzako hiru faseetan bereizten da, eta ez bakarrik kanpoko itxuran: Hiriaren eraikuntza <u>Partzelazioa + Urbanizazioa + Eraikuntza</u> da, eta hirurak ez dira zergatik batera edo jarraian eman behar (Manuel Sola-Moralesen arabera). Hiri zati baten hazkunde forma bat bereizteko, hiru faseen ezaugarriak ikertu behar dira.